

1994ko MAIATZAREN 26ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamalauko maiatzaren hogeitasiean, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

1.994 URTEKO AURREKONTUA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

1.994 urteko Aurrekontua osatu ondoren, Aurrekontu horretan, Lau Milioi Hiruehun eta Berrogeitamar mila (4.350.000,-) peztatako, haserako defizita, aurrikusten da.

Aldiz, baita ere, Herriko Hilerrian obrak egitea nahitaezkoa da, lekurik ez dagoelako.

Guzti hori kontutan hartuaz, HAMAR MILIOIko (10.000.000,-) peztatako mailegu berri bat eskatzeko proposamena egin du.

Proposamen, aho batez onartu da.

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaitan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen

126.1 artikuluen arabera, 1.993 Urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz.

Alkateak eginiko, mailegu berriaren proposamenaren arabera, 1.994 urteko Aurrekontua, honela geldituko da:

SARRERAK

1 Kap. - Zerga Zuzenak	7.944.989,- Pezta
2 Kap. - Zeharkako Zergak	100.000,- Pezta
3 Kap. - Tasak eta beste diru sarrerak	2.502.613,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korronteak	36.572.268,- Pezta
5 Kap. - Ondare Sarrerak	440.130,- Pezta
7 Kap. - Kapital Transferentziak	13.500.000,- Pezta
9 kap. - Pasibo Finantzieroen Aldaket.	25.000.000,- Pezta

GUZTIRA 86.060.000,- Pezta

=====

IRTEERAK

1 Kap. - Pertsonalaren Lansariak	21.932.004,- Pezta
2 Kap. - Ondasun arrunt eta zerbit...	14.781.942,- Pezta
3 Kap. - Interesak.....	1.871.981,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korronteak ...	5.204.590,- Pezta
6 Kap. - Inbertsio Errealak	24.668.226,- Pezta
9 Kap. - Pasibo Finantzieroen Aldak..	17.601.257,- Pezta

GUZTIRA 86.060.000,- Pezta

=====

Alkateak hitza harturik, zera dio:

ONG Erakundeek bultzaturik, Udaletako Aurrekontu Orokorretatik, 0,7% laguntza, Hirugarren Munduari bideratzeko, kanpaina bat hasi da.

Euskal Herrian, batz bestea, 60 erakunde daude, mugimendu horren inguruan mugitzen direnak.

Lizartzako Aurrekontu Orokorra, 46.750.000,- peztata igotzen denez, 0,7% aplikatuz, HIRUEHUN ETA HOGEITAZAZPI MILA BERREHUN ETA BERROGEITAMAR (327.250,-) pezta izango lirateke, mugimendu horretara bideratu beharrekoak.

ONG Erakundeek bultzatutako kanpainari onespena ematea proposatu du.

Alkateak luzatutako proposamena eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da. Baita ere 1.994 urteko Aurrekontua eta Egitaritze Oinarriak, aho batez onartu dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikulua koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, funtzionari, pertsonal laboral finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dituelarik.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Lanpostuaren Izena Lanpostu Kop-Taldea-Egoera-Oharrak

Idazkari-Kontuhartzailea	1	B	J	70%
Gizarte Laguntzailea	1	B	J	16%
Lanetako Ofiziala	1	D	J	

Administrari Laguntzailea	1	D	J
Garbitzailea	1	E	BB
Etxez Etxeko Laguntzailea	1	E	BB 26,67%
Peoia	1	E	BB

Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartu dira.

PLAN ESTRATEGIKOA - TOLOSALDEA GARATZEN

Julian Zubeldia Aierbe Udalkideak, hitza harturik, Tolosaldea Garatzen S.A. Elkartean partehartzeko eskaeraren arrazoiak, eta Elkartearen funtzionamendua gidatuko duten Estatutuek eta Estatuz-Kanpoko akordioak aurkeztu ditu.

Hitzez-hitz, honela diote "Tolosaldea Garatzen" Elkarte Publikoaren Estatutuak:

I KAPITULUA

IZENA, HELBIDEA, XEDEA ETA IRAUPENA

LEHENENGO ARTIKULUA.- Izena

- 1.- Izaera anonimoko elkarte publiko hau TOLOSALDEA GARATZEN izenarekin eratzen da eta Estatutu hauetan agertzen den gizarte-xedea du.
- 2.- Bere hasierako bazkideak ondoren aipatzen diren Tolosaldeako Udalak dira:

BIGARREN ARTIKULUA.- Elkartearen Helbidea

Elkartearen helbidea ezartzen da, eta hor dago kokatua elkartearen legezko ordezkariak, dena den Administrazio-Kontseiluak

eskumena du edozein motatako sukurtsal, delegazio edo ordezkaritzak edonon irekitzeko, komenigarria erizten badio elkartearen martxa onerako eta bere xede eta helburuen betetze hoberako.

HIRUGARREN ARTIKULUA.- Gizarte-Xedea

Elkartearen xedea izango da Tolosaldeako Udalen biziberritze, sustapen eta ekonomi-garapenerako lagun lezaketen iharduera guztiak burutzea eta baita herrietako zerbitzu publikoen eskaintzarako elkar-lana eta koordinazioa indartu eta sostengatzea ere, Estatutu hauetako 1.2 artikulua dioenaren arabera eta indarrean dagoen legeriak Udalerriei horretarako aitortzen dien eskumenen esparruan.

LAUGARREN ARTIKULUA.- Zereginak

1.- Aurreko artikuluan zehaztutako xedearen garapenean, elkartearen zereginak dira ondorengoak bereziki:

A.- Ekonomi-sustapenaren arloan

A.1.- Izaera orokorrokoak

- a) Eskualdeko ekonomi eta gizarte eragileak dinamizatu barne-ahalmenen erabilpen egokia eta giza eta material baliabideen mobilizazioa eraginkorra erraztearren.
- b) Kanpoko baliabideak erakarri eskualdearen barne-garapena ahalbidetu dezaten.

A.2.- Izaera berezikoak

- c) Mendi Nekazaritzako Eskualde Batzordearekin koordinatuz, nekazaritza garapenerako politika orokor bat zehaztu eta bertatik erator daitezkeen iharduerak indartu eta sostengatu.

- d) Autoenplegua eta enpresa eta kooperatiba berrien sorkuntza bultzatu. Horretarako Informazio eta Aholkularitza Zerbitzu bat izango da eskura, orain martxan dauden enpresentzat ere irekia egongo dena.
- e) Merkataritza eta zerbitzuen sektorea indartu, Merkataritza Ganbararen eskualde-zerbitzuak eta lanbide heziketarako egitarauak sustatuz, ekonomi-informazio bideak eta interes profesionala dutenak sortuz. Merkatal hirigintzari zuzenean dagokien egitarauak prestatu, toki publikoak berrantolatuz, merkatalgune berrien ezarpenak orientatuz, trafikoaren zirkulazio eta antolamendu era berriak ezarriz, aparkaleku berriak sortuz, e.a....

B.- Lanbide Heziketaren Arloan

- f) Ekonomi eragile, heziketa zentru eta Udaletak ogazte-zerbitzuekin batera, eskualdeko enplegu-eskaria antolatu lanbide heziketa premiak planifikatu ahal daitezen.
- g) Heziketa egitarauak diseinatu eta, bere kasuan, kudeatu ere bai, etengabeko heziketa eta lanean diharduten langileen birziklaketa erraztearren, eta gazte eta langabeak laneratzea samurtzearren.

C.- Lurralde eta Ingurugiroaren Antolamendu eta Kudeaketa

- h) Eskualde osoa hartuko duen Lurralde Antolamendu Plan baten gertuketa sustatu eta koordinatu. Lurzoru industrialaren sorkuntzari eta prestakuntzari ekin beharko zaio bereziki.
- i) Erabiltzen ez diren industri-instalakuntzen katalogo bat prestatu, iharduera berrietarako birmoldatuak izan ahal daitezen.

- j) Lurzoru industrialaren eta birmoldatutako instalakuntzen eskaintza sustatu eta kudeaketaren koordinaketa bultzatu.
- k) Hirigintza eta ingurugiro arloan, eskualde osoko kudeaketa koordinatua indartu.

D.- Zerbitzu Publikoen Eskaintza Arloan

- m) Eskualdeko Udal-Administrazioan politika eta baliabideei etekinik hoberena ateratzen eta arrazionaltzen ahalegindu.
- n) Udal-zerbitzu publiko horien eskaintzan, Udal arteko tresna amankomunen sorketa-prozesuak bultzatu eta sostengatu.

E.- Azken Klausula

- 1) Orohar, gizarte-xedea betetzeko beharrezko diren iharduera guztiak garatu.
- 2) Horretarako eskaera egiten zaionean, Elkarteak laguntza teknikoa eskainiko die Udalei, bere gizarte-xedearen barruko arazoetan.
- 3) Era berean, aurrez Administrazio-Kontseiluak hala erabakiko balu, burutu ahal izango ditu delegazioz, bere gizarte-xedearen barruan egonik, beste Administrazio Publiko baten zeregin direnak ere.

BOSTGARREN ARTIKULUA.- Norabideen Gertuketa

Gizarte-xedearen garapenean eta bere zereginak hobeto betetzearren, lurralde eta ekonomi politika norabideak atondu ahal izango dira, beroien eraginkortasuna Batzar Nagusian behin-betiko onartu eta Udal bakoitzeko Araudi eta Ordenantzetan behar bezala sartu arte atzeratua geratzen delarik.

SEIGARREN ARTIKULUA.- Iraupena

Elkartearen iraupena mugagabea, eta ko..... ren an hasiko du bere iharduera.

II KAPITULUA

KAPITALA - AKZIOAK

ZAZPIGARREN ARTIKULUA.- Hasierako Kapitala

- 1.- Hasierako kapitala HAMAR (10) MILIOI PEZETAN finkatzen da, HAMAR MILA akziotan ordezkatuak, bakoitza MILA (1.000),- PEZETAKO izenezko balioa duena, izendunak eta erabat ordainduak, hurrenez-hurren zenbatuak 1etik 10.000ra, biak barne direla.
- 2.- Kapitalaren partaidetza ondoren adierazten den bezala egingo da:
 - a) Akzioen zati bat proportzio berdinean banatuko da Elkartea osatzen duten Udal guztien artean.
 - b) Udaletako bakoitzak izenpetu beharreko akzioen gutxiengoa finkatu ondoren, gainerakoak, azkeneko Udal-Erroldari kasu eginez, Udalerri bakoitzeko eskubidezko biztanle-kopuruaren arabera banatuko dira.
 - c) Irizpide horiek aplikatuz, hasierako kapital-partaidetza, Estatutu hauetako I Eraskinean datorren moduan gelditzen da finkatua.
 - d) Baldin eta eskualdeko Udalen batek edo gehiagok Elkartean ez parte hartzea erabakiko balute, Elkar-te-kapitalean haientzako izendatutako zatia, kapitalean partaidetza handiagoa hartzeko prest agertzen diren Udal haiei esleituko zaie.
- 3.- Kapital-handitzeak, kapital partaidetzarako ezarritako irizpideei jarraituz

egingo dira.

ZORTZIGARREN ARTIKULUA.- Akzioak

Administrazio-Kontseiluko Lehendakariak eta Idazkariak sinatuko dituzte akzioen tituluak eta elkartearen zigilua eraman beharko dute.

III KAPITULUA

ELKARTEAREN ORGANOAK

BEDERATZIGARREN ARTIKULUA.- Organoen Zerrenda

Elkartearen Gobernu-Organoak ondorengoak izango dira:

- Akziodunen Batzar Nagusia.
- Administrazio-Kontseilua.
- Zuzendari-Gerentea.

LEHEN ATALA

BATZAR NAGUSIA

HAMARGARREN ARTIKULUA.- Izaera

Legez deitu eta eraturako Akziodunen Batzar Nagusia, Elkartearen organo gorenena da, eta bertan hartzen diren baliozko erabakiak nahitaez jarraitu beharrekoak dira bazkide guztientzat, nahiz batzarrean ez egon edo kontrako botoa eman.

HAMAIKAGARREN ARTIKULUA.- Zereginak

Izaera orokorrean, Akziodunen Batzar Nagusiari dagokio, elkarte anonimoei

buruzko legeriak organo honi ematen dizkion ahalmen guztiak burutzea. Edozein moduz, bere zereginak dira:

- a) Iragan urteko Administrazio-Kontseiluaren kudeaketa ezagutu, onartu edo ezadostasuna agertzea, eta baita indarrean dagoen urterako planak ere.
- b) Administrazio-Kontseiluak aurzketen dituen politika eta administrazio norabideak finkatzen laguntzea eta onartzea.
- c) Estatutu hauetako 5. artikuluan aipatzen diren Norabideak erabakitzea, berorietara lotu beharko direlarik Araudi eta Ordenantzak, Administrazio-Kontseiluak gizarte-xedea osatzen duten gaiei buruzko proposamena egin ondoren.
- d) Bazkide berriak onartzea. Ezingo zaio bazkide izatea ukatu eskualdea osatzen duten Udalerrietako inori. Berorien zerrenda Estatutu hauetan dator Eraskin gisa. Bazkide gehiago onartzeko baldintza izango da eskaria egiten duen Udalerria eskualdekoa den Udalerri batekin edo gehiagorekin mugakide izatea.
- e) Elkaratearen Aurrekontu eta Kontu Orokorrak behin-betiko onartzea, eta bere kasuan, Elkarateak kudeaketa ekonomikoaren bidez partaidetza zuzena duen aurrekontuak ezagutzea.
- f) Urte osoa hartuta, Elkaratearen ohizko aurrekontua gainditzen duten kreditu eta finantza operazioak behin-betiko onartzea.
- g) Estatutuak onartzea, eta bere kasuan, aldatzea.
- h) Elkaratearen desegitea erabakitzea.
- i) Administrazio-Kontseiluak proposatuta, bere garrantzia dela eta Batzar Nagusian tratatzea edo baiestea komeni den beste edozein gai.

HAMABIGARREN ARTIKULUA.- Osaketa eta Bertaratzeko Eskubidea

- 1.- Elkartea osatzen duten Udalerri bakoitzetik, ordezkari bat joango da Batzar Nagusira behar bezala egiaztatua, bere Udaleko akzioen ordezkari eta titulartasun horri dagozkion gainerako eskubideekin. Ordezkari horrek, dagozkion Udaleko Alkate edo Zinegotzi izan beharko du.

Ordezkariak izaera iraunkorra duenean, udal-erabakian jasoak geratuko dira hurrenez-hurren, zeintzuk joango diren bere ordezkari, falta den kasuetan. Era berean eta ohiz kanpoko Batzarren eskaera eraginetarako, jasoak geratuko da horretarako eskumena duten edo ahalmen hori Udaleko organo jakin baten erabakiari dagozkion.

Ordezkariak bilkura jakin baterako bakarrik denean, Udalak izendapen-sistema horren berri emango dio Administrazio-Kontseiluko Idazkaritzari eta baita izendapena dagozkion udal-organoari ere. Kasu honetan Udal-ordezkariak bilkura hasieran egiaztatu beharko dituzte euren buruak, aktaren eraskin gisa jasoko den idatziaren bidez.

- 2.- Era berean Batzarrean egoteko eskubidedun dira, hitzarekin baina botorik gabe:
 - a) Udalerri jakin baten ordezkari izan gabe, Administrazio- Kontseiluko kide direnak.
 - b) Zuzendari-Gerentea.
 - c) Udal bakoitza osatzen duten Udal-talde bakoitzetik ordezkari bat.
 - d) Tratatu beharreko gaien arabera, Lehendakariak deitu edo baimentzen dituen pertsonak.

HAMAHIRUGARREN ARTIKULUA.- Batzar Motak

- 1.- Batzar Nagusiak ohizkoak eta ohizkanpokoak izango dira eta

Administrazio-Kontseiluak deituko ditu eta finkatuko du gai-zerrenda, edota Justizi Agintaritzak, Abenduaren 22ko 1564/89 Errege Dekretu Legean aurrikusitako kasuetan.

2.- Ohizko Batzar Nagusia urtean behin gutxienez, lehen sei hilabeteetan, bildu da, Administrazio-Kontseiluak izendatzen duen egunean:

- a) Txostena, Balantzea eta Kontuak aztertu, eztabaidatu eta onartu edo ezesteko.
- b) Kontseiluaren kudeaketa onartu edo ezesteko eta bere kasuan, gerta litezkeen kargugabetzeen kaltetan izan gabe, kontseilukideei dagozkien erantzukizunak eskatzeko.

3.- Ohizkanpoko Batzarrak Administrazio-Kontseiluak deitzen dituenean bilduko dira, edota organo horren Lehendakariari, gutxienez, elkarte-kapitalaren ehuneko 5a ordezkatzeko duten bazkideek errekerimendu notarial bidez hala eskatzen diotenean, betiere Elkartearen zeregin edo iharduerei buruzko gai-zerrenda zehatz batekin.

Udal-ordezkariek ezingo dute Ohizkanpoko Batzarrerako deia eskatu, berariaz ahalmen hori eman zaien izaera iraunkorreko ordezkariak ez badira. Gainerako kasuetan, Udal-bazkide bakoitzeko organo eskudunak hartu beharko du ohizkanpoko deiaren eraginetarako erabakia.

HAMALAU GARREN ARTIKULUA.- Akziodunei Informazioa

Akzioen Udal-ordezkariek eskatu ahal izango dituzte, idatziz, Batzarra biltzeko izendatutakoaren aurreko bost egunen barruan, edo Batzarrean bertan hitzez, Gai-Zerrendan agertzen diren arazoei buruz premiazkoak jotzen dituzten txosten edo argitasun guztiak.

Administrazio-Kontseilua behartua egongo da horiek ematera, salbu, Lehendakariaren iritzian, eskatutako datuak agerira ateratzea kaltegarria bada elkartearen interesetarako. Salbuespen honek ez du indarririk izango eskaera

egiten duten akziodunek gutxienez kapitalaren laurden bat ordezkatzeko badute.

HAMABOSTGARREN ARTIKULUA.- Lehendakaria eta Idazkaria

Administrazio-Kontseiluko Lehendakaria eta Idazkaria izango dira Batzar Nagusikoak ere. Lehendakaria ez badago Lehendakariordeak ordeztuko du, eta hau ere falta balitz, Batzarrak aukeratuko luke bertan diren Udal-ordezkarien artean. Idazkariaren ordezkaria bildutakoek aukeratuko dute.

HAMASEIGARREN ARTIKULUA.- Deialdiak

- 1.- Batzarra bildu behar duen data baino hamabost egun lehenago, Merkatal Errejistrazioaren Buletin Ofizial eta Probintzian zabalkunde handiena duen egunkarietako baten bidez egingo dira deialdiak, Udal bakoitzari eta Batzarrera joateko eskubidea duten gainerako pertsona edo taldeei igorriko zaien idatzien bidez.
- 2.- Deialdiaren iragarpenean adieraziko da, ohizkoa ala ohizkanpoko den, data eta bilkuraren xedea. Halaber, bidezkoa bada, adierazi liteke ere, bigarren deialdiz noiz bilduko den Batzarra, bataren eta bestearen artean, gutxienez, hogeitalau orduko epea egon beharko duelarik.
- 3.- Deialdian adierazitako egunean bilduko da Batzar Nagusia, baina bere bilkurak egun batez edo gehiagoz luzatzea egongo da administratzaileek eskatuz gero, edota Batzarrean bertaratutako kapitalaren laurden bat ordezkatzeko duten bazkideen hala eskatuko balute.
- 4.- Akziodunek eskatutako Ohizkanpoko Batzar Nagusia, Kontseiluak deituko du, Estatutu hauen 13.3. artikuluan aipatutako notarial errekerimendua hartu eta hurrengo 30 egunen barruan.

HAMAZAZPIGARREN ARTIKULUA.- Batzarren Eraketa

- 1.- Batzar Nagusia, nola ohizkoa hala ohizkanpoko, balioz eratua geldituko

da lehen deialdian, izenpetutako kapitalaren ehuneko 51 gutxienez ordezkatzan duten boto-eskubidedun akziodunak edo ordezkariak bertan badira.

Bigarren deialdian, Batzarraren eraketa baliozkoa izango da, kapitalaren ehuneko 40a gutxienez ordezkatur dagoenean.

- 2.- Ohizko edo ohizkanpoko Batzar Nagusian baliozko erabakiak hartu ahal ditzan ondorengo gaietan, -obligazioen jaulkipenak, kapitalaren handitze edo gutxitzea, Elkartearen eraldaketa, bategitea edo zatiketa, eta oro har Estatutuen edozein aldaketa- beharrezkoa izango da lehen deialdia, izenpetutako kapitalaren ehuneko 75a gutxienez ordezkatzan duten boto-eskubidedun akziodunak edo ordezkariak bertan izatea.

Apartatu honetan aipatzen diren erabakiek balioa izango badute, Batzarrean ordezkaturako kapitalaren bi herenen aldeko botoa bildu beharko dute.

HEMEZORTZIGARREN ARTIKULUA.- Erabakiak

- 1.- Batzar Nagusiaren erabakiak, bertan dauden akziodunen edo ordezkaturen gehiengoak biltzen dituen botoz hartuko dira.
- 2.- Gehiengoa dagoela ulertuko da, bertan dauden akziodun edo ordezkatur kapitalaren erdia baino gehiago ordezkatur duten bazkideak aldeko botoa ematen dutenean.
- 3.- Hala ere, Estatutu hauetako 5. artikuluan aurrikusitako Norabideak onartzeko, beharrezkoa izango da bertan dagoen edo ordezkaturako kapitalaren %70aren aldeko botoa.

Boto-berdinketa emango balitz, bigarren bozketa bat egingo da, eta erabakiak balio izateko bertan dagoen edo ordezkaturako Udal-bazkideen elkarte-kapitalaren ehuneko 51 ordezkatur dutenen aldeko botua beharko

da.

HEMERETZIGARREN ARTIKULUA.- Aktak

- 1.- Batzar Nagusiaren bileretan, Idazkariak jasoko du dagokion akta eta Batzarrak berak onartuko bilkuraren amaieran, eta horren faltan, hamabost eguneko epearen barruan, Lehendakariak -edozein kasutan ere bere baimenak- eta bi Kontuhartzaileak onartuko dute, batak gehiengoaren ordezkartzan eta besteak gutxiengoarenean.
- 2.- Esandako bi moduetatik edozeinetan onartutako aktak bere onarpen-datatik aurrera izango du eragin indarra.

HOGEIGARREN ARTIKULUA.- Ziurtagiriak

Edozein akziodunek, edo haien ordezt Batzarrean bertaratutako edozein pertsonak eskubidea izango du hartutako erabakien ziurtagiria jasotzeko. Administrazio-Kontseiluko Idazkariak luzatuko ditu ziurtagiri horiek eta Lehendakariak ontzat emango, edota legezt haien ordezkotza egiten dutenek.

BIGARREN ATALA

ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA

HOGEITABATGARREN ARTIKULUA.- Izaera

Administrazio-Kontseiluari dagozkio, Elkartearen organo kolegiatua izanik, kudeaketa eta ordezkartza zereginak neurririk handienez, epaiketen eta handik kanpo, Batzar Nagusiaren akordioetan erabakitakoak beste mugarik gabe eta legearen aginduz, organo horri dagozkion edo estatutuetan beretzat gordeak gelditzen diren ahalmenak salbu.

HOGEITABIGARREN ARTIKULUA.- Eskumenak

- 1.- Administrazio-Kontseiluari dagozkio ondorengo ahalmenak:

- a) Batzar Nagusiaren erabakiak burura eramatea.
- b) Zuzendari-Gerentea izendatzea eta bere kasuan, gainerako zuzendaritza-taldea kontratatzea.
- c) Elkaratearen zerbitzuak antolatzea, etekinik hoberenera eramango duten arauak ezarriz eta bere ondasunak administratzea, edozein delarik ere haien izaera, jatorria eta jomuga, kontserbazio, erreforma eta saneamendu lanak burutuz.
- d) Egitura organikoaren barruan ez dauden zerbitzu berrien ezarketa onartzea.
- e) Beste Administrazio batzuek edo haien menpeko erakunderen batek delegatutako zereginen iharduera onartzea, baldin eta zeregin horiek Elkaratearen xede eta zereginekin zerikusirik badute.
- f) Zentruko langile-kopurua erabakitzea, lanpostuen deskribaketa onartzea eta halaber berorien hautaketa eta ordainketarako irizpideak, Zuzendari-Gerenteak proposatu ondoren.
- g) Elkaratearen esku utzitako zereginen betetzea eta gizarte-xedearen lorpen hobea bideratuko duten politika eta administrazio irizpideak landu eta bere kasuan, erabakitzea.
- h) Estatutu hauetako 5. artikulua aitpatzen dituen Norabideak gertutzea eta Batzar Nagusira jasotzea eztabaidarako eta bere kasuan, onartzeko.
- i) Elkartetik kanpoko zerbitzu teknikoak kontratatzea gizarte-xede eta zereginen betetze hoberako premiazkoa denean.
- j) Elkaratearen funtzionamendua zuzendu eta ikuskatzea. Bereziki,

Lurralde antolamendu gaietan, idazketa-lanak koordinatzea, politika-irizpideak landu eta onartzea eta idazlari-taldea izendatzea dagokio.

- k) Gizarte-xedea osatzen duen iharduerarekin zerikusia duten enpresa edo elkarteetan parte hartzea proposatzea Batzar Nagusiari.
- l) Hirugarren pertsonen eragiketak finkatzea, onartutako programen aplikazioaren ondorio direnean.
- m) Erantzukizun osoz Elkartea ordezkatzeko, epaiketan eta handik kanpo, era guztietako ekitaldi eta kontratuetan eta edozein pertsona edo erakunderen aurrean.
- n) Gizarte-xedearen lorpenerako komenigarri edo premiazko diren kontratuak egin eta ekitaldiak ospatzea, ondasun higiezin erostetarako eta besterentzeak barne direla, eta baita ondasunekiko eskubideen erate, aldatze edo iraungitzeak ere, hipotekenak eta errenta berezikoaren salbuetsi gabe.
- o) Edozein izaeratako ondasun eta eskubideen akordioak lortzea eta zuzentasun edo eskubidezko epaiketarekin jartzea prozedura horretarako gai diren arazo guztiak.
- p) Elkarteari komeni liezazkiokeen kreditu-eragiketa eta gainerako finantza-operazioak erabakitzea.
- q) Elkarteen urteko kudeaketaren Memoria argigarria, Galera eta Irabazien kontuak eta balantzea formulatzea.
- r) Elkarrekin Publikoari legearen aginduz derrigor aplikatu beharreko egitarau, aurrekontu eta gainerako dokumentazio ekonomiko-finantzaria prestatzea, bere kasuan.
- s) Elkarteari dagozkion edozein motatako eskubide, ekintza,

erreklamazio eta errekursoei buruz komenigarriena derizkiona erabakitzea, edozein maila, gradu eta eskumenetako Justizi Epaitegi eta Auzitegiren aurrean eta Estatu, Autonomi Elkarte, Probintzia eta beste edonongo Agintaritza eta Bulegoen aurrean. Era berean, Letratu eta Eskuordekoei auzietarako ahalmenak ematea, Elkartearen defentsa egin dezaten.

- 2.- Goiko zerrendak aipamen-izaera hutsa du eta ez die inola ere mugarik jartzean, Elkartearen negozio edo interesak gobernatu, zuzendu eta administratzeko dituen ahalmen zabalei, salbu, Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenera bereziki gordeak gelditzen diren gaitan.

HOGETAHIRUGARREN ARTIKULUA.- Administrazio-Kontseiluko Kideez

- 1.- Administrazio-Kontseilua gutxienez zazpi eta gehienera hamaika kidez osatua egongo da.
- 2.- Batzar Nagusiaren eskumena da kontseilari-kopurua erabakitzea, kontseilariak izendatzea eta kentzea. Kontseilariak, elkarte eratzten duten Udalen bateko Alkate edo Zinegotzi izan beharko dute.
- 3.- Elkartearen eratze ekitaldian izendatutako kontseilariak, legeak ezarritako eperik luzeenean beteko dute euren kargua eta beste egoeraren batean izendatuei, kasu bakoitzean Batzar Nagusiak zehazten duen epera mugatuko zaie euren agintearen iraupena. Edozein moduz, eta Batzar Nagusiak edozein unetan kentzea erabakitzearen kaltetan izan gabe, ordezkaritza kargua uzten dutenean kontseilaritza ere utzi egin beharko dute, eta betiere, udal-hauteskundeak izan ondoren Udal berriak eratzten direnean, nahiz eta berriro hautatuak izan.
Batzar Nagusiak berariaz erabakitako kargu-kentze kasuak salbu, uztera doazen kontseilariak euren karguetan jarraituko dute izendapen berriak egin arte. Kargu-uztearen arrazoia udal-hauteskundeak direnean ezingo dira bitarteko denboran administrazio-lanak besterik egin. Elkartearen iharduera erabat ez etetearren egingo dira eta gainerako ekintzak ez dira

lotesleak izango.

- 4.- Ezingo dira Administrazio-Kontseiluko kide izan, Abenduaren 22ko 1564/89 E.D.L.aren 124 artikulua eta arazoari buruzko gainerako legez-dapenek bateraezin aldarrikatzen dituzten pertsonak.
- 5.- Kontseilariak berriro hautatuak izan daitezke eta karguak errefusagarriak dira, Elkartearen beste guztiak bezala.
- 6.- Kontseilariak ez dute jasoko inolako ordainketarik beren zereginak betetzeagatik, legozkieken dieta eta kalte-ordainen kaltetan izan gabe.
- 7.- Administrazio-Kontseiluko kideen eta Idazkariaren izendapenak Merkataritza-Erregistroan inskribatuko dira.

HOGEITALAUGARREN ARTIKULUA.- Kontseiluko Karguak

- 1.- Administrazio-Kontseiluak bere kideen artean hautatuko ditu Lehendakaria eta Lehendakariordea, azken hau izango delarik hura ordeztuko duena falta bada edo gaixotzen bada.
- 2.- Kontseiluak Idazkaria ere izendatuko du, eta hau kontseilaria izan daiteke ala ez. Ez balitz, hitza izango du baina botorik ez Kontseiluaren erabakietan. Horrela izendatutako Idazkaria Elkartearena eta Batzar Nagusiarena ere izango da.
- 3.- Estatutuen beste zenbait artikulutan aitortzen zaizkion zereginaz gain, bereak izango dira Kontseiluaren erabakiak tramitatu eta betearaztea, berorien burutzapena zainduz, berariaz beste kontseilari bat delegatzen zaizkion erabaki haietan salbu.

HOGEITABOSTGARREN ARTIKULUA.- Kargugabetze Aurreratua

- 1.- Batzar Nagusiak edozein unetan kendu ahal izango ditu kontseilariak

berek karguetatik.

- 2.- Baita ere utzi dezakete kargua euren borondatez, askatasun osoz uko eginez eta Elkarteari idatziz jakitera emanaz. Kasu honetan ezingo dute kargua utzi jakinerazpena egin eta handik hilabete osatu arte, beren kudeaketagatik legokiekeen zentsuraren kaltetan izan gabe.

HOGITASEIGARREN ARTIKULUA.- Erantzukizunak

- 1.- Kontseilariak gizarte-hartzekodunen aurrean erantzungo dute, Legearen edo Estatutuen aurka egindako ekintzengatik edo kargua betetzeko beharrezko den zuhurtasunik gabe jokatzegatik sortutako kalteengatik.
- 2.- Kaltea osatu zuen ekintza edo erabakia hartu zuen administrazio-organoko kide guztiek erantzungo dute elkartasunez, nolaz eta frogatzen ez duten, ez zutela parte hartu erabakia hartzean edo burutzean, beraren berririk ez zutelarik edo berri izanda, komeni zen guztia egin zutela kaltea saihesteko edo behintzat, argi eta garbi haren kontra agertu zirela.

HOGETIAZAZPIGARREN ARTIKULUA.- Bileretan bertaratzea

Kontseilariak joan beharra daukate Kontseiluak egiten dituen bileretara. Modu jarraitua joateari uztea, nahiz eta beste Kontseilari batek ordeztua izan, nahizko arrazoi izango da Batzar Nagusiak bere kargutik kendu eta ordezkoa jartzea erabakitzeko.

HOGETAZORTZIGARREN ARTIKULUA.- Deialdia

- 1.- Elkartearen interesak eskatzen duten maiztasunarekin bidluko da Administrazio-Kontseilua, eta gutxienez, hiru hilean behin.
- 2.- Kontseiluaren bileretarako deia Lehendakariaren edo bere ordezkorekin ahalmena da. Hala ere, gehienera hamabost eguneko epearen barruan egin behar da deialdia, kontseilarien erdiak baino bat gehiagok idatziz

Lehendakariari hala eskatzen diotenean, edo plaza huts bat gertatzen denean, estali behar den erabakitzeko eta, bere kasuan, hurrengo Batzar Nagusia bildu bitartean kargua nork bete behar duen izendatzeko.

- 3.- Deialdiak, Lehendakariaren aburuz premiazko diren kasuetan ezik, gutxienez hamar egun aurretik igorriko ditu Idazkariak jakinarazpen idatziaren bidez. Dagokion bilkuran tratatu eta ebatzi beharreko gai guztiak eta bakoitza adieraziko dira eta beren garapenerako beharrezkoa den dokumentazio guztia bidaliko da.
- 4.- Ez da beharrezkoa izango Kontseilurako deia aurretik egitea, kontseilari guztiak bertan egonik, edozein tokitan daudela ere, ahobatez bilera egitea erabakiko balute, balio osoz eratua ulertuko delarik edozein erabaki hartzeko.

HOGUITABEDERATZIGARREN ARTIKULUA.- Kontseiluaren Eraketa

- 1.- Kontseilua balioz eratutzat ulertzeko bere kideen edo ordezkoen erdiak baino bat gehiago bertaratzea nahitaezkoa izango da.
- 2.- Kontseilari batek beste bati delegatu diezazkioke bere ahalmenak, legeak ezartzen dituen mugekin, Kontseiluaren sei bilkuretan bera ordeztu eta botoa eman dezan. Delegazio hau Lehendakariari zuzendutako eskutitzez egin beharko da.
- 3.- Lehenengo deialdian bilkura egiteko bertaratutako kontseilukide edo ordezkatuak zenbakia nahikoa ez balitz, hurrengo eguneko ordu berean eta toki berean bildu ahal izango da Kontseilua balio osoz, kontseilukide edo ordezkatuak zenbakia edozein dela ere.
- 4.- Kontseiluaren bilkuretan parte hartuko du, hitzez baina botorik gabe, Elkartearen Zuzendari-Gerenteak, eta baita, Kontseiluko Lehendakariaren iritziz, ahokularitza edo informazio arrazoiengatik komenigarria jotzen den Elkarteko beste edozein enplegatuk ere.

HOGEITAMARGARREN ARTIKULUA.- Erabakiak

- 1.- Kontseiluak Elkartearen ordezkariak du eta bere erabakiak, Estatutu hauek agindutakoaren arabera hartuak eta Batzar Nagusiaren ebazpenetara doituak, akziodun guztiek jarraitu beharrekoak dira.
- 2.- Administrazio-Kontseiluaren erabakiak, bertaratutako kontseilukide edo legez ordezkariak emandako botoen gehiengo absolutuz hartuko dira, boto-berdinketa kasuan, Lehendakariaren edo legez ordezkari duenaren botoak erabakiko du.
- 3.- Kontseiluaren ahalmenen bat iraunkorki delegatzeari edo Batzorde Eragilea izendatzeari dagozkion erabakiak, baliozkoak izango badira, Kontseilukideen bi herenen aldeko botoa bildu beharko dute, eta ez dute eraginik izango Merkataritza-Erregistroan inskribatu artean.

HOGEITAMAIKAGARREN ARTIKULUA.- Aktak

- 1.- Kontseiluaren bilera bakoitzean akta jasoko da, bertaratutakoen zenbakia eta nortasuna, dauden ordezkariak, hitzegindakoaren laburpena, hartutako erabakiak eta izandako bozketen emaitzak idatziko direlarik. Aktak, onartzen denetik aurrera izango du eragin indarra, eta onarpena Kontseiluaren bileraren ondoren edo hurrengo lehenengo bileran egingo da.
- 2.- Kontseiluko Idazkariak, zeinaren eskumena izango baita bilkuren prestakuntza eta deialdien tramitazioa, bilkuretan gertatua aktan jasoko du eta Lehendakariaren Oniritziarekin izenpetu egingo du, era berean, hartutako erabakien ziurtagiria luzatuz.
Idazkariaren plaza hutsik balego, falta balitz, edo gaisotasuna edo benetako ezintasuna dela eta ez balego, adin txikieneko kontseilariak ordeztuko luke.
- 3.- Elkarteak bileren Akta-Liburu bat izango du, eta Kontseiluko Idazkariari

dagokio beraren zainketa eta kontserbazioa.

HOGEITAMABIGARREN ARTIKULUA.- Delegazioak

Administrazio-Kontseiluak bere zereginak hobeki betetzearren, delegatu ahal izango ditu, izaera iraunkorrez ala aldi baterako, zenbait zeregin zehatz Lehendakariarengan, Kontseilariengan, Zuzendari-Gerentearengan eta Estatutu hauetan aurrikusitako beste zenbait organoetan, legez delegaezinak diren haiek salbu.

HOGEITAMAHIRUGARREN ARTIKULUA.- Lehendakariaren Zereginez

- 1.- Administrazio-Kontseiluaren Lehendakariari dagozkio, Estatutu hauetako beste zenbait artikulutan aitortzen zaizkionaz gain, ondorengo ahalmenak:
 - a) Elkartearen eta Administrazio-Kontseiluaren ordezkaritza iraunkorra.
 - b) Elkartearen zerbitzu guztien ikuskaritza gorena eta gizarte-ihardueraren garapenaren zainketa.
 - c) Administrazio-Kontseiluaren bilerak zuzentzea eta bertako buru izatea.
 - d) Batzar Nagusian hartutako erabakiak eta Estatutuak betetzen diren begiratzea.
 - e) Administrazio-Kontseiluak delegatu lekizkiokeen ahalmenak.
- 2.- Lehendakari kargua hutsik balego, falta balitz, edo gaisotasuna edo benetako ezintasuna dela eta ez balego, Lehendakariordeak beteko lituzke esandako zereginak. Aurreko apartatuko c) letrari dagokionez, Lehendakariordearen faltan, bertan dauden Kontseilarien artean adinik handienekoak beteko du zeregin hori.

HIRUGARREN ATALA

ZUZENDARI-GERENTEA

HOGEITAMALAU GARREN ARTIKULUA.- Izendapena

Administrazio-Kontseiluak izendatu eta kenduko du Elkarteko Zuzendari-Gerentea. Kontseiluak erabakitzen duen ordainsaria izango du.

HOGEITAMABOST GARREN ARTIKULUA.- Zereginak

- 1.- Administrazio-Kontseiluak, Erakundearen gobernua ziurtatzeko beharrezko diren ahalmenak beretzat gordez, Zuzendari-Gerenteari esleituko dizkio era iraunkorrean bete ditzan Elkartearen ordezkaritza, administrazio eta kudeaketa zereginak, eta halaber, dagozkion zeregin betearazleak, Kontseiluak berak markatutako norabideen muga barruan eta haien arabera.
- 2.- Bereziki bere zereginak izango dira:
 - a) 22.1. artikuluko c), d), g), h), i), j) eta k) letretan aipatzen diren Administrazio-Kontseiluaren zereginetan proposamenak egitea edo, bere kasuan, manuzko izaeraz informatzea.
 - b) Lehendakariari laguntzea eta Administrazio-Kontseiluaren erabakiak betearaztea.
 - c) Elkarteko zerbitzu guztien eta pertsonalaren burutza egin eta haien zuzendu eta bultzatzea, eta baita ikuskatzea ere.
 - d) Elkartearen sinadura eramatea.

- e) Gastu eta ordainketa-aginduak ematea.
- f) Mota guztietako ekintza eta errekurtsioetan Elkartearen ordezkatzea.
- g) Administrazio-Kontseiluari eta Lehendakariari bere ihardueraren berri ematea eta Elkartearen kudeaketari dagozkion arazo guztiez informatzea.
- h) Pertsonalaren hautaketarako irizpideak eta Zentruko Zuzendaritza-Taldea osatzeko gainerako hautagaiak proposatzea Administrazio-Kontseiluari.
- i) Administrazio-Kontseiluak aitortzen dizkion ahalmenak erabili eta delegatzea, aurrez Kontseiluak baimendu ondoren.

LAUGARREN ATALA

BESTE ZENBAIT ORGANO

HOGUITAMASEIGARREN ARTIKULUA.- Batzorde Betearazlea

Kontseiluak izendatu ahal izango ditu bere barruan Batzorde Betearazle bat edota Kontseilari-delegatu bat edo gehiago, Kontseiluari Estatutuetan eta legez aitortzen zaizkion zereginak beteko dituztenak, Legez delegaezinak diren haiek salbu. Kontseilukideen bi herenen aldeko botoa beharko da delegazioa iraunkorra den kasuan.

HOGUITAMAZAZPIGARREN ARTIKULUA.- Aholkularitza Organoak

- 1.- Administrazio-Kontseiluak eta, bere kasuan, Elkartearen Batzar Nagusiak sortu ahal izango dituzte aholkularitza edo segimenduko organo edo batzordeak, zenbait lan berezi burura eramateko. Lanen koordinaketa Zuzendari-Gerenteari dagokio, Administrazio-Kontseiluaren ahalmenen kaltetan izan gabe.

- 2.- Egin beharreko lanak aurrez ezaguna den Udal bat edo Udal-multzo bat ukitzen duenean, dagokion Udalbatzak izendatutako ordezkari bat sartuko da Udalerri bakoitzetik aholkularitza batzordean.
- 3.- Aholkularitza organoetako kideak izendatzean, gizarte-eragile eta ekonomikoak bertan izatea bermatuko da; Gipuzkoako Merkataritza Ganbara eta Elkartearen esku utzitako xede eta zereginekin bat datozen interes orokorren defentsara eskainitako beste zenbait erakunde; hezkuntza organismo eta zentruak, lanbide heziketara eskainiak bereziki; beste Administrazioetako ordezkariak, eta baita euren gaitasun teknikoa eta jakinduria dela eta, lanak hobeto burutzen lagundu dezaketen zenbait pertsona ere.

Ordezkaritza erakunde batena denean, izendapena erakunde horri dagokio. Gainerako kasuetan Administrazio-Kontseiluari dagokio izendapena.
- 4.- Aholkularitza organoek bete ditzakete delegazioz, Administrazio-Kontseiluaren zeregin ez-betearazleak.

HOGIEMEZORTZIGARREN ARTIKULUA.- Aholkularitza Organoen Eraketa

- 1.- Betiere segimendu eta aholkularitza Batzordea eskualde garapena bultzatzeko partaidetza organo bezala sortzen da, eta eskualdeko agente eta sektore instituzional eta sozioekonomikoek eratua izango da.
- 2.- Ondorengo zereginak dagozkio organo honi:
 - a) Plan Estrategikoa aztertzea, betetzen den segimendua egitea eta proposamenak lantzea, eta baita Planaren eguneratzea eta jada eginiko azterketak ere.
 - b) Eskualdeari dagokion informazio sozioekonomikoen eskuratzea eta

tratamendua.

- c) Enpleguaren egoera eta bilakaera aztertzea.
 - d) Herrietako zerbitzu publikoen eskaintza amankomunatu batera zuzendutako neurriak aztertu eta proposatzea.
 - e) Aurrekoekin erlazioa duten gainerakoak.
- 3.- Batzordeak hiruhilabetero, Elkartearen kudeaketa-planaren betetzeari buruzko txostena jasoko du.
- 4.- Batzordeak luza ditzakeen txostenek ez dute izaera loteslerik izango.
- 5.- Aholkularitza Batzordeek eskatu ahal izango dizkiote Administrazio-Kontseiluari, gizarte xedearen eta euren esku utzitako zereginen garapen hoberako beharrezkoak jotzen dituzten zerbitzu sorketak eta lan teknikoak.

IV KAPITULUA

EKONOMI-FINANTZA ERREGIMENA

HOGUITAMERETZIGARREN ARTIKULUA.- Lege-Erregimena

Administrazio publikoen araudi erregulatzailerak izaera orokorrean elkarte publikoetarako xedatuari doituak dio Elkarteak bere erregimena, aplikaziokoa zaion guztian, Estatutu hauei eta Elkarte Anonimoen lege-erregimenaren xedapen ordenatzaileei.

BERROGEIGARREN ARTIKULUA.- Baliabide Ekonomiez

Elkartearen baliabide ekonomikoak ondorengoak izango dira:

- a) Osatzen duten Udalerrien ekarpenak. Partida honen aurrekontu-dotazioa Udal bakoitzak elkarte-kapitalean duen jabetzaren arabera izango da.

- b) Beste Erakunde Publikoen diru-laguntzak edo ekarpenak.
- c) Partikularren Ekarpenak.
- d) Estatutu hauetan adierazitako helburuetarako hitzartzen diren baimendutako kredituak.
- e) Jatorriz udalerrienek diren tasa edo ordainerazpenak eta haiek Elkarteari ematea erabakitzen dituztenak.
- f) Bere ondasun eta zerbitzuen errenta eta ekoizpenak.

BERROGEITABATGARREN ARTIKULUA.- Elkarte-Ekitaldia

Elkarte-ekitaldia bat etorriko da urte naturalarekin. Salbuespen gisa, Elkartearen lehenengo ekitaldia bere eragiketak martxan jartzen diren datan hasiko da eta urte bereko abenduaren hogeitamaiketan amaituko.

BERROGEITABIGARREN ARTIKULUA.- Balantzearen Formulazioa

Elkartearen izaera publikoa dela eta derrigor eraman beharreko kontalaritza eta ekonomiako beste dokumentuez gain, Administrazio-Kontseiluak urtero, Abenduaren 31ko erreferentziaz eta elkarte-ekitaldia ixten denetik hiru hilabeteko epean, ekitaldiari dagokion Elkartearen Balantzea formulatuko du, galera eta irabazien kontua, mozkinen banaketa edo aplikazio proposamena eta memoria argigarria barne direla, Ohizko Batzar Nagusiaren ezagutza eta onarpenaren pean jarri beharreko dokumentuak denak.

BERROGEITAHIRUGARREN ARTIKULUA.- Balantzearen Egitura

Balantzearen egitura eta aktiboko elementuen balioespenerako gainerako dokumentuak, Abenduaren 22ko 1564/89 Errege Dekretu Legean barne-hartutako lege arauetara doitu dira, Elkartearen izaera publikoa dela eta aplikaziozkoa izan lekiokkeen araudiaren kaltetan izan gabe.

BERROGEITALAUGARREN ARTIKULUA.- Informazio Eskubidea

Batzar Nagusirako deialdia egiten denetik aurrera, edozein akziodunek jaso ahal izango du Elkartetik, berehala eta dohan, Batzarraren onarpenera aurkeztuko diren dokumentuak eta kontu-auditoreen txostena. Deialdian eskubide honen aipamena egingo da.

BERROGEITABOSTGARREN ARTIKULUA.- Aurrekontuaz

- 1.- Aurrekontua orekatua izango da.
- 2.- Ekitaldi bakoitzeko Urriaren 31an ikusten diren desbideraketak akziodunen jakinaren gainean jarriko dira. Akziodun bakoitzak elkarre-kapitalean duen jabetzaren arabera estaliko da defizita.

V KAPITULUA

ELKARTEAREN DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

BERROGEITASEIGARREN ARTIKULUA.- Desegiteko Arrazoiak

Elkartea legeak inposatutako kasuetan desegingo da, edota Batzar Nagusiak hartutako erabakiz, 1564/89 Errege Dekretu Legearen 262 artikuluko eta hurrengoetako betebeharrekin.

BERROGEITAZAZPIGARREN ARTIKULUA.- Likidazioa

Elkartearen desegitea aginduzko eran behin erabaki eta gero, 1564/89 Errege Dekretu Legearen 262 artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauak aplikatuko dira desegite hori burutzeko.

VI KAPITULUA

EZADOSTASUNAK

BERROGEITAZORTZIGARREN ARTIKULUA.- Konponezinak

- 1.- Eman daitezkeen inpuazio-ekintzen kaltetan izan gabe, Elkartea martxan den bitartean edo likidazio garaian, akziodunen eta konpainiaren artean, edota elkarte-arazoak direla eta akziodunen artean bertan sortzen diren konponezinak, aldean arteko adostasunez ebatziko dira, eta horren faltan, arbitraipean jarriko dira, Elkarite Anonimoen Legearen arabera ohizko Auzitegietan konpondu beharreko kasuak salbu.
- 2.- Batzar Nagusiak ebatziko ditu Administrazio-Kontseiluaren barruan sortzen diren ezadostasunak.

BERROGEITABEDERATZIGARREN ARTIKULUA.- Elkarite-Erabakien Betetzea

Ezingo da ezein kasutan Batzar Nagusiaren edo Administrazio-Kontseiluaren erabakien betearazpena indargabetu, akziodun batek edo gehiagok, erabaki horien baliotasunaren aurka, arbitroen epaietara jotzen duelako bakarrik.

KLAUSULA GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.- UDALEN AURREKONTUEN AURKAKO OBLIGAZIO EKONOMIKOAK SUPOSATZEN DITUZTEN ERABAKIEN ERAGINKORTASUNA

Erabakien erregimen orokorretik salbuetsiak gelditzen dira, Udalerrri jakin batzuei afektatuz, Udalaren Aurrekontuen kargura aurre egin beharreko finantza-obligazioak dakartzaten erabaki haiek, ohizko aurrekontuaren ehuneko bata baino gehiagokoak direnean, eta edozein kasuta, BOST MILIOI (5.000.000,-) pezetatik gorakoak direnean ere, horretarako dotazio-partidarik ez badago, edo partida egonda ere, nahikoa ez balitz edo gastu gehiago berekin ekarriko balitu. Kasu horretan, erabakiak eraginik izango badu, ukitutako Udalaren edo Udalen adostasun beharko da, Udalbatzaren osoko erabaki bidez hartua.

BIGARRENA.- MENDI NEKAZARITZA BATZORDEAZ

Abenduaren 30eko 394/85 Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren babesean sortutako Mendi Nekazaritza Batzordeak, aipatutako Dekretuak aitortzen dizkion eskumenen kaltetan izan gabe, Elkartearen aholkularitza organo izaera izango du, bere eskumeneko gai guztietan.

HIRUGARRENA.- LEGE AIPAMENAK

Estatutu hauetan egiten diren lege arauen aipamen guztiak, orain indarrean daudenak interpretatu, zabaldu, baldintzatu edo aldatzen dituztenetara ere hedatuko dira, elkarte-norbanakoaren borondatera uzten ez duten guztian.

LAUGARRENA.- FORUA

Bazkideak, bazkide izate hutsagatik, beren foru partikularrari uko egiten diote, Elkartek bere helbidea duen tokiari dagokionaren mesedetan.

LEHENENGO ERASKINA.-

Tolosaldeako Udalerrirentzat kapitalean haseran aurrikusten den partaidetza ondorengoa da:

<u>UDALERRIA</u>	<u>KAPITALA</u>	<u>%</u>
ABALTZISKETA	200.000	2,00
ADUNA	200.000	2,00
ALBISTUR	200.000	2,00
ALEGIA	400.000	4,00
ALKIZA	200.000	2,00
ALTZO	200.000	2,00
AMEZKETA	300.000	3,00
ANOETA	400.000	4,00

ASTEASU	300.000	3,00
BALIARRAIN	100.000	1,00
BELAUNTZA	200.000	2,00
BERASTEGI	300.000	3,00
BERROBI	200.000	2,00
BIDEGOIAN	200.000	2,00
ELDUAIN	200.000	2,00
HERNIALDE	200.000	2,00
IBARRA	800.000	8,00
IKAZTEGIETA	200.000	2,00
IRURA	200.000	2,00
LARRAUL	100.000	1,00
LEABURU-GAZTELU	200.000	2,00
LIZARTZA	200.000	2,00
ORENDAIN	200.000	2,00
OREXA	100.000	1,00
TOLOSA	2.800.000	28,00
VILLABONA	900.000	9,00
ZIZURKIL	500.000	5,00

TOLOSALDEA	10.000.000	100,00
------------	------------	--------

=====

BIGARREN ERASKINA

Tolosaldeko Udalerrien zerrenda eta herri bakoitzeko Udal-Errolda
 datan.

ABALTZISKETA	284
ADUNA	296
ALBISTUR	303
ALEGIA	1.680
ALKIZA	264

ALTZO	333
AMEZKETA	1.040
ANOETA	1.801
ASTEASU	1.205
BALIARRAIN	99
BELAUNTZA	295
BERASTEGI	969
BERROBI	603
BIDEGOIAN	441
ELDUAIEN	233
HERNIALDE	287
IBARRA	4.463
IKAZTEGIETA	370
IRURA	632
LARRAUL	143
LEABURU-GAZTELU	567
LIZARTZA	697
ORENDAIN	170
OREXA	78
TOLOSA	18.150
VILLABONA	5.360
ZIZURKIL	2.711

ESTATUTUZ-KANPOKO ERABAKIA

"TOLOSALDEA GARATZEN S.A." Sozietate Publikoaren Estatutuetan 13. artikulutik 18.era ezarritakoaren kalterik gabe, bazkide guztiek elkarren artean erabaki dute aipatu artikuouetan araututako gaiei dagokienez, Sozietatearen funtzionamendua bat etorriko dela honako agirian jasotakoarekin.

Beraz, eta barne funtzionamenduari begira, hona hemen nola idatzita geratuko diren 13.etik 18.era bitarteko artikulua:

HAMAHIRUGARREN ARTIKULUA.- Batzar Motak

- 1.- Batzar Nagusiak ohizkoak eta ohizkanpokoak izango dira eta Administrazio-Kontseiluak deituko ditu eta finkatuko du gai-zerrenda, edota Justizi Agintaritzak, Abenduaren 22ko 1564/89 Errege Legean aurrikusitako kasuetan.
- 2.- Ohizko Batzar Nagusia urtean behin gutxienez bilduko da, Administrazio-Kontseiluak izendatzen duen egunean:
 - a) Txostena, Balantzea eta Kontuak aztertu, eztabaidatu eta onartu edo ezesteko.
 - b) Kontseiluaren kudeaketa onartu edo ezesteko eta bere kasuan, gerta litezkeen kargugabetzeen kaltetan izan gabe, kontseilukideei dagozkien erantzunkizunak eskatzeko.
- 3.- Ohizkanpoko Batzarrak Administrazio-Kontseiluak deitzen dituenen bilduko dira, edota organo horren Lehendakariari, gutxienez, elkarte-kapitalaren bosten bat ordezkatzeko duten bazkideen heren batek idatziz hala eskatzen diotenean, betiere Elkartearen zeregin edo iharduerei buruzko gai-zerrenda zehatz batekin.

Udal-ordezkariek ezingo dute Ohizkanpoko Batzarrerako deia eskatu, berriaz ahalmen hori eman zaien izaera iraunkorreko ordezkariak ez badira. Gainerako kasuetan, Udal-bazkide bakoitzeko organo eskudunak hartu beharko du ohizkanpoko deiaren eraginetarako erabakia.

HAMALAU GARREN ARTIKULUA.- Akziodunei informazioa

Akzioen udal-ordezkariek eskatu ahal izango dituzte, idatziz, Batzarra biltzeko izendatutakoaren aurreko bost egunen barruan, edo Batzarrean bertan hitzez, Gai-Zerrendan agertzen diren arazoei buruz premiazkoak jotzen dituzten txosten edo argitasun guztiak.

Administrazio-Kontseilua behartua egongo da horiek ematera, salbu, Lehendakariaren iritzian, eskatutako datuak agerira ateratzea kaltegarria bada elkarteren intereseterako. Salbuespen honek ez du indarririk izango eskaera egiten duten akziodunek gutxienez kapitalaren bosten bat eta Udal-bazkideen heren batek ordezkatzen badute.

HAMABOSTGARREN ARTIKULUA.- Lehendakaria eta Idazkaria

Administrazio-Kontseiluko Lehendakaria eta Idazkaria izango dira Batzar Nagusikoak ere. Lehendakaria ez badago Lehendakariordeak ordeztuko du, eta hau ere falta balitz, Batzarrak aukeratuko luke bertan diren udal-ordezkarien artean. Idazkariaren ordezkoa bildutakoek aukeratuko dute.

HAMASEIGARREN ARTIKULUA.- Deialdiak

- 1.- Batzarra bildu behar duen data baino hamabost egun lehenago egingo dira deialdiak, Udal bakoitzari eta Batzarrera joateko eskubidea duten gainerako pertsona edo taldeei igorriko zaien idatzien bidez.
- 2.- Deialdiaren iragarpenean adieraziko da, ohizko ala ohizkanpoko den, data eta bilkuraren xedea. Halaber, bidezkoa bada, adierazi liteke ere, bigarren deialdiz noiz bilduko den Batzarra, bataren eta bestearen artean, gutxienez, ordu beteko epea egon beharko duelarik.
- 3.- Dieldian adierazitako egunean bilduko da Batzar Nagusia, baina bere bilkurak egun batez edo gehiagoz luzatzea egongo da administratzaileek eskatuz gero, edota Batzarrean bertaratutako kapitalaren laurden bat ordezkatzen duten bazkideek hala eskatuko balute.
- 4.- Akziodunek eskatutako Ohizkanpoko Batzar Nagusia, Kontseiluak deituko du, 13.3. artikuluan aipatutako baldintzen betetzea egiaztatzen denetik hurrengo bost egunen barruan.

HAMAZAZPIGARREN ARTIKULUA.- Batzarren Eraketa

- 1.- Batzar Nagusia, nola ohizkoa hala ohizkanpokoa, balioz eraturik geldituko da lehen deialdian, izenpetutako kapitalaren ehuneko 51 gutxienez ordezkatzen duten boto-eskubidedun akizodunak edo ordezkariak bertan badira, betiere, gutxienez Udal-bazkideen erdiak ordezkatuak badaude.

Bigarren deialdian, Batzarraren eraketa baliozkoa izango da, kapitalaren laurdena gutxienez ordezkatua dagoenean eta gutxienez Udal-bazkideen laurden baten Udal-ordezkariak biltzen direnean.

- 2.- Ohizko edo ohizkanpoko Batzar Nagusiak baliozko erabakiak hartu ahal ditzan ondorengo gaietan, -obligazioen jaulkipenak, kapitalaren handitze edo gutxitzea, Elkartearen eraldaketa, bategitea edo zatiketa, eta oro har Estatutuen edozein aldaketa- beharrezkoa izango da lehen deialdian, izenpetutako kapitalaren ehuneko 75a gutxienez ordezkatzen duten boto-eskubidedun akziodunak edo ordezkariak bertan izatea, eta gutxienez Udal-bazkideen gehiengoa ordezkatua egotea. Bigarren deialdian, aurreko apartatuan ezarritako sistema bera aplikatuko da.

Apartatu honetan aipatzen diren erabakiek balioa izango badute, Batzarrean ordezkatutako kapitalaren bi herenen aldeko botoa bildu beharko dute.

HEMEZORTZIGARREN ARTIKULUA.- Erabakiak

- 1.- Batzar Nagusiaren erabakiak, bertan dauden akziodunen edo ordezkatuen gehiengoak biltzen dituen botoz hartuko dira.
- 2.- Gehiengoa dagoela ulertuko da, bertan dauden akziodun edo ordezkatuen kapitalaren erdia baino gehiago ordezkatzen duten bazkideak aldeko botoa ematen dutenean.

Boto-berdinketa emango balitz, bigarren bozketa bat egingo da, eta bertan dauden Udalen edo ordezkatuen gehiengoaren aldeko botoa biltzen duten erabakiak izango dira baliozkoak.

- 3.- Hala ere, Estatutu hauetako 5. artikuluan aurrikusitako Norabideak onartzeko, beharrezkoa izango da bertan dagoen edo ordezkaturako kapitalaren %70aren aldeko botoa eta Udalen bi herenena.

Boto-berdinketa emango balitz, bigarren bozketa bat egingo da, eta erabakiak Elkarteko Udal-bazkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoz hartuko dira, betiere, bertan dagoen edo ordezkaturako elkarte-kapitalaren ehuneko 51 ordezkaten badute.

"Tolosaldea Garatzen S.A." Elkartearen Estatutuak aztertu eta eztabaidatu ondoren eta Erregimen Lokaleko Oinarri Legearen 22.2.b) artikuluan jasotako ondorioetarako

ERABAKI DA:

- 1.- "Tolosaldea Garatzen S.A." Sozietate Publikoaren osaketan parte hartzea, elkartearen funtzionamendua gidatuko duten Estatutuak eta Estatutuz-Kanpoko Akordioa onartuz eta Udal honi hasieran egokitutako kapital sozialen parte hartzea, Estatutuen I. Eranskinean jasotako kopuruaz.
- 2.- Kapital sozialari dagokionez, Alkateari edo bere ordezkari izendatutako zinegotziari, baimena ematea aipatu Eranskinean agertzen den partehartzea aldatzeko, Kapital sozialean eskuhartzen haundiagoa onartu beharko balitz, Udalen batek edo batzuek hasieratik Sozietatean ez parte hartzea erabaki dutelako.

MAILEGUEN BERFINANTZAKETA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek baditu bi mailegu, Euskadiko Kutxarekin kontratuak,

Bere garaian, kontratuak sinatzeko baldintzetan, interes finkoak agertzen dira, bata %14 eta bestea %12,25.

Maileguei dagozkien interesak asko jeitxi dira. Gaur egungo interes tasa, MIBOR deitzen dena, $7,6 + 0,5\%$ ean dago, hau da: $8,1\%$ ean dago.

Hori dela eta, Udal honek, Euskadiko Kutxarekin kontratatuta dituen bi mailegu hoi berfinantzaketa proposatu du, gaur egun dauden interesetara egokituaz.

Proposamena, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Lizartzako Udaletxe Berrikuntzaren Azken ziurtapena, HOGEI MILIOI HIRUEHUN ETA BERROGEITALAU MILA LAUEHUN ETA BEDERATZI (20.344.409,-) peztatakoa onartu eta Diputaziora bidalia izan da.

Ima Zubeldia Luloagari, Ipintza Berri Etxearen 5. solairuan dagoen pisuko sukaldea eta baine gelan konponketak egiteko baimena eman zaio.

Benito Urdanpilleta Iturrioz Jaunari, Asura Baserriaren sarrerako ate zaharra kendu eta berria 1,5 - 2m. barruago jartzeko baimena eman zaio.

M^a Kruz Otxotorena Andreari, Kale Nagusia 36ko etxebizitzan, oholtza berritu eta kanpoko leihoak ordezkatzeko baimena eman zaio.

Inaxi Etxeberri Lizaso Andreari, Plaza Ondo Etxeko Administradoreari, etxe horren fatxada margotzeko baimena eman zaio.

Maria Jauregi Berakoetxea Andreari, Kale Nagusia 12an dagoen etxeari erretila egiteko baimena eman zaio.

Jose Manuel Etxeberria Maiz Jaunari, Hirubide 1ean, sukaldean obra egiteko baimena eman zaio.

Kontxi Etxeberri Andreari, Ipintza Berri 4. Esk. etxeko balkoian toldoa jartzeko baimena eman zaio.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.